

75. FITXA BIZKAIA - Bizkaiko Lurralde Historikoan basoetako azpiegituretan inbertsioak egiteko eta basoen bideragarritasuna garatu eta hobetzeko 2025. urterako dirulaguntzak

Nori zuzendua: jabeen elkarteak, mankomunitateak, administrazio-batzarrak eta udalak; pertsona fisiko eta juridikoak.

Sarbide-esteka: [Hasiara - Bizkaiko Foru Aldundiko Egoitza Elektronikoa](#)

Erreferentziazko araudia: [Bizkaiko Foru Aldundiaren 152/2024 FORU DEKRETUA, abenduaren 26koa. Honen bidez, Bizkaiko Lurralde Historikoan basoetako azpiegituretan inbertsioak egiteko eta basoen bideragarritasuna garatu eta hobetzeko 2025. urterako dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak eta deialdia ezartzen dira](#)

Eremuak: Ingurune Naturala

Zenbatekoa: 5.092.659 €

Eskabideak aurkezteko epea: 2025/04/25ko 13:00ean.

Laburpena

Diru-laguntza hauek Bizkaiko Foru Aldundiak onetsitako aurreko laguntza-planerako eskabideak aurkezteko epea ixten denetik eta Bizkaiko Foru Aldundiak onetsitako **basoen kudeaketako plan teknikoen** ondorioz Bizkaiko Lurralde Historikoko baso pribatuetan egindako **baso-jarduketak**, baita **planak eurak egiteko ere**.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

1. Baso eremuak birlandatzea eta sortzea
2. Kudeaketa planak eta basogintzako hobekuntzarako proiektuak
3. Basogintzako inbertsioak azpiegituretan
4. Produktiboak ez diren inbertsioak Hondamendi naturalek eragindako kalteen prebentzioa
5. Produktiboak ez diren inbertsioak Hondamendi naturalek eragindako kalteen erreparazioa
6. Produktiboak ez diren inbertsioak ingurugiroa hobetzeko helburu dutenak

Gastuetarako aldi hautagarria

Dirulaguntza jasoko duten jarduketak hauek izango dira: Bizkaiko Foru Aldundiak onetsitako aurreko laguntza-planaren eskabideak aurkezteko epea amaitu zenetik eta hurrengo datak arte:

- a) **2025eko ekainaren 1a**, Baso-landaketak eta baso-azalerak sortzea (basoberritzeak, itxiturak eta babesleak) 1 jarduketako inbertsioetarako.
- b) **2025eko urriaren 1a**, 2, 3, 4 eta 5 jarduketako inbertsioetarako (Aurtengo eskaera-aldia aurretik egindako belar-sastrakak garbitzea ez da diruz lagunduko).
- c) **Dagokion ekitaldiko abenduaren 1a**, Basogintzako inbertsioak azpiegituretan 6 jarduketako inbertsioetarako.

Intereseko beste alderdi batzuk

Onuradun edo elkarre posible bakoitzak dirulaguntza eskaera bakarra izapidetuko du, eta eskabide horrek diruz lagundu daitezkeen jardueretako bat edo batzuk jaso ahal izango ditu 1., 2., 3., 4. eta 5. jarduketetatik, eta 6. jarduketarako (azpiegiturek) laguntza-espeditente bat baino gehiago eskatu ahal izango dira.